



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaleteko Udala

Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloan hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzen arautegiaren hasierako onespena.

Portugaleteko Udalbatza Osoak 2024ko maiatzaren 31ko ohiko bilkuran besteak beste erabaki zuen hasierako onespena ematea Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloan hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzen arautegiari, jarraian agertzen den testuarekin bat etorritz.

Halaber erabaki zuen argitalpen honen biharamunean jendaurreratzeko, interesdu-nei entzunaldia emateko eta erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko epea zabalduko dela eta hala iraungo duela hurrengo 30 egunetan. Epe horretan erreklamazio-iradokizunik egiten ez bada, ulertuko da arautegi hori behin betiko onetsita dagoela.

Portugaleten, 2024ko maiatzaren 31n.— Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



PORTUGALETEKO MERKATARITZA, OSTALARITZA
ETA ZERBITZU ARLOAN HIZKUNTZA PAISAIA ETA INGURUNE DIGITALA
EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZEN ARAUTEGIA

Lehen artikulua. — Xedea

Arautegi honen xedea da Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduei eta irabazi-asmorik gabeko elkarteei hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzak zuzeneko emakidaren bidez ematea arautzea. Diruz lagun daitezkeen lau kontzeptutan zehazten dira dirulaguntza horiek:

- Euskarazko errotuluak jartzeko dirulaguntzak. Dirulaguntza hauen ondorioetarako, errotulutzat jotzen da lokalaren kanpoaldean, toldoetan eta merkataritza-ibilgailuetan dagoena, bai eta atarien barruko direktorioetan, jardueraren solairua eta ate-zenbakia adierazteko, dagoena ere.
- Kartel finkoak eta lokalen barruko beste elementu batzuk, bezeroentzako informazioa dakartenak, euskalduntzeko dirulaguntzak.
- eus domeinua hartzeko dirulaguntzak.
- Webguneak euskaratzeko dirulaguntzak.

Hori guztia Portugaleteko Udalbatzak 2018ko martxoaren 22ko ohiko bilkuran onartutako Portugaleteko Udalaren 2018-2022 aldirako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren 4. atala, eremu sozioekonomikoari buruzkoa, bete nahian eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko legerian ezarritakoarekin bat etorritik egingo da.

2. artikulua. — Onurak eta kanporatuak

1. Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-establezimenduek, baldin eta enpresa txikitzat hartzen badira eta euskarazko errotuluak instalatu badituzte, .eus domeinua hartu badute edo webguneak euskaratu badituzte unean uneko deialdiaren urtean edo aurrekoan.

2. Arautegi honen ondorioetarako, enpresa txikitzat hartuko da 50 langile baino gutxiagoko plantilla duena eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra 10 milioi eurotik gorakoa ez duena, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EC Gomendioaren arabera. Baldintza hori mugatzeko behar den informazioa, hala badagokio, Portugaleteko Udalak eskatu ondoren justifikatuko da.

3. Era berean, Portugaleteko irabazi-asmorik gabeko elkarteek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, betiere kontzeptu beragatik onuradun izan ez badira.

4. Kontzeptu beragatik aurretik onuradun izan diren enpresa txikiek ezin izango dituzte laguntza hauek jaso.

5. Dirulaguntza hauen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira euskararen normalizazioa helburu duten erakundeak (euskaltegiak, ikastetxeak, ikastolak...) eta erakunde publikoak.

6. Era berean daude dirulaguntza hauen aplikazio-eremutik kanpo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Lege Dekretuaren 23.2 artikuluan aipatutako jarduerak eta pertsona fisiko eta juridikoak.

3. artikulua. — Onuradunen eskakizunak eta betebeharrak**3.1. Diruz lagundutako ekintzari dagokionez:**

A eta B. Euskarazko errotuluak eta kartel finkoak jartzea:

- Errotulu eta karteletako testuek zuzen idatzita egon beharko dute. Horretaz Udalaren Euskara Zerbitzuak aholkua eskainiko die hala eskatzen dutenei.
- Establezimenduaren jarduerak (taberna, okindegia, arropa-denda...) derrigor agertu behar du errotuluan; adibidez: «Peio arrandegia», «Ana-



txu taberna». Ez dira diruz lagunduko izen propioak, toponimoa edota abizenak, soilik agertzen dituzten errotuluak.

- C. eus domeinua hartzea. .eus domeinua hartzen duen webgunearen edukia euskaraz ala euskaraz eta beste hizkuntza batez idatzita egongo da. Bigarren kasu horretan euskarazko testuaren gostea baino ez da diruz lagunduko.
- D. Webguneak euskaratzea. Euskarazko testuak gramatikalki zuzenak izan beharko dira, Udalaren Euskara Zerbitzuaren irizpide teknikoen arabera.

3.2. *Eskatzaileei dagokienez:*

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13.2 ataleko suposamenduetan.
- b) Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztaketa guztiak onartzea, aipatutako Legeko 14.1.c atalarekin bat etorritz.
- c) Helburu berbera duen beste dirulaguntza batzuen berri ematea, aipatutako Legeko 14.1.d) atalarekin bat etorritz.
- d) Administrazioarekiko zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea betearazpen-aldian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2023 Lege Orokorren Erregelamen-dua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18.1.e artikulua-ren arabera. Portugaleteko Udalarekin betearazpen-aldiko zerga-zorrik edo -zehapenik ez dagoela ofizioz egiaztatuko da. Gainerako administrazio publikoekin betearazpen-aldiko zerga-zorrik edo -zehapenik ez dagoela erantzukizunpeko adierazpen batean adieraziko da, onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak ez baitu deialdian 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen, 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikulua-ren arabera.

Artículo 4. — Eskabideak non eta noiz aurkeztu

- 1. Eskabideak, eskatutako agiriekin batera, Udal Erregistroan aurkeztu behar dira (astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara), edo, bestela, Herritarren Arreta Bulegoan, San Roke plazan (astelehenetik ostiralera, 14:30etik 20:15era). Izapideak elektronikoki egiteko aukera ere badago, eskabide normalizatua Erregistro Elektronikoa-n aurkeztuta, egoitza elektronikoa honen bidez: <https://tramita.portugalete.org>.
- 2. Establezimendu bakoitzak eskabide bakarra aurkeztuko du egindako inbertsio guztietarako.
- 3. Dirulaguntzak eskatzeko epea urteko deialdia onartu ondoren zabalduko da eta hala iraungo du, deialdian zehazten den egunera arte.

5. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak

- a) Eskabide-orria, behar bezala beteta.
- b) Entitate eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANen fotokopia.
- c) Egindako inbertsioa egiaztatzen duten fakturen kopia, zeinean eskabidearen xede diren eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuak jaso beharko diren. Diruz lagundu daitezkeen aktiboak argi identifikatuta dituzten fakturak baino ez dira onartuko.
- d) Aurkeztutako fakturen ordainagirien kopiak. Berrehun eurotik gorako ordainketak banku-transferentzia, banku-ziurtagiri edo ordainketa-laburpenaren bidez egiaztatuko dira. Agiri horietan argi eta garbi identifikatu beharko dira ordainketaren hartzailea eta jaulkitzailea.
- e) Errotulua jarri dela frogatzen duen argazkia (argazki bat errotulu bakoitzeko) edo, bestela, errotulua jartzeko proiektua.
- f) Webgunearen URL eta domeinuaren izena.
- g) Ardurazko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan ezarritako kasuetan ez dagoela egiaztatzen duena.
- h) «Datuen alta edo aldaketa» izeneko dokumentua, behar bezala beteta.



i) Helburu berbera duen beste dirulagutza batzuei buruzko eta Administrazioarekiko zorrei buruzko ardurazko aitortpena.

6. artikulua. — Instrukzioa

1. Organo kolegiatu batek dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio organo emaileari, instrukzio-organo baten birtartez.
2. Instrukzio-organoa Portugaleteko Udalaren Euskara Zerbitzua izango da.
3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 24. artikulua-ren arabera, Portugaleteko Udaleko Euskara Zerbitzuari dagokio, instrukzio-organoa den aldetik, ebazpen-proposamenaren oinarri diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak ofizioz egitea, bai eta aipatutako 24. artikulua-ren 3. atalean zerrendatutako instrukzio-jarduerak egitea ere.
4. Onartutako eskabideak aztertu eta ebaluatu ondoren, instrukzio-organoak dagokion txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu eta organo emaileari helaraziko dizkio. Berariaz adieraziko du eskatutako dirulaguntza eman ala ukatuko ote duen eta, dirulaguntza emanez gero, zenbatekoa izango den.
5. Aipatutako organo kolegiatuaren kideak hauexek izango dira:
 - Hizkuntza normalizazioko teknikari bat, presidentetzako zereginetan.
 - Hizkuntza normalizazioko teknikari bat, idazkaritzako zereginetan.
 - Kulturako teknikari bat, kide gisara.
6. Organo kolegiatua balio osoz eratzeko, presidentea eta idazkaria eta kideen erdiak bertaratu behar dira.

7. artikulua. — Ebazpena

1. Ebazpena egiteko eskumeneko organoa Alkatetza-Udalburutza da. Eskabideak erregistroan aurkeztu diren ordena hertsia-ren arabera ebatziko dira eta espedienteak osatu ahala, horretarako bideratutako partida ekonomikoan erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.
2. Ebazpenak adieraziko du eskatutako dirulaguntza eman ala ukatu egingo den. Emanez gero, halaber adieraziko da onuradunaren helbidea eta dirulaguntzaren zenbatekoa. Ukatz gero, onuradunaren helbidea eta ukatzearen arrazoiak aipatuko dira.
3. Eskatzaileei dirulaguntzaren ebazpena banan-banan jakinarazteaz gain, Portugaleteko Udalaren Gardentasun Atarian erakunde onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa argitaratuko dira, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.h) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
4. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, dagokion deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea amaitzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, erakunde eskatzaileak ulertu beharko du bere eskaera ez dela onartu administrazio-isiltasunez, hargatik eragotzi gabe geroago espresuki ebaztea.
5. Udal-ebazpen horren aurka, zein behin betikoa baita administrazio-bidean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da eta, nahi izanez gero eta aldez aurretik, berraztertze errekurtsoa ere bai.

8. artikulua. — Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza ordainaldi bakar batean ordainduko da, banku-transferentzia bidez, eskatzaileak adierazitako kontu korrontean.

9. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa eta bateragarritasuna

1. Hauexek izango dira dirulaguntzen zenbatekoak:
 - *A kontzeptua.* — *Euskarazko errotuluak jartzeko dirulaguntzak.* Euskaraz bakarrik idatzitako errotulu bakoitzaren gastuaren % 75 dirulagunduko da, 600 euro gain-



ditu gabe. Bi hizkuntza ofizialetan idatzitako errotulu bakoitzaren gastuari, berriz, % 60ko dirulaguntza emango zaio, 400 euro gainditu gabe.

— *B kontzeptua.* — *Kartel finkoak euskalduntzeko dirulaguntzak.* Bezeroentzako informazioa dakarren kartel finko bakoitzaren edota lokal barruko beste elementu bakoitzaren gastuaren % 75 diruzlagunduko da, 600 euro gainditu gabe.

— *C kontzeptua.* — *eus domeinua hartzeko dirulaguntza.* Gostearen % 100 diruzlagunduko da, 30 euro gainditu gabe.

— *D kontzeptua.* — *Webguneak euskaratzeko dirulaguntzak.* Euskara hutsez idatzitako webguneen gastuaren % 50 diruzlagunduko da, 600 euro gainditu gabe; era berean, hizkuntza euskarara aldatzeko aukera eskaintzen duten gaztelaniazko webguneen gastuaren % 40 diruzlagunduko da, 400 euro gainditu gabe.

2. Arautegi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste dirulaguntza batzuekin, horien izaera eta ematen dituen administrazioa edo erakundea edozein dela ere, baldin eta guztien baturak ez badu gainditzen diruz lagundu daitekeen jardueraren kostuaren % 100.

3. Gainfinantzaketa gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke, diruz lagundutako gastuaren guztizko kostuaren mugaraino.

10. artikulua. — *Dirulaguntza ukatzeko edo itzultzeko arrazoiak*

1. Dirulaguntza ukatzeko edo itzultzeko arrazoiak izango da eskatutako agirietan datuak ezkutatzea edo faltsutzea edo osatu gabe aurkeztea.

2. Eskabideek ez badituzte eskatutako datuak biltzen edo horiekin batera ez bada adierazitako agiririk aurkezten, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie ikusitako akatsak zuzentzeko eta ohartaraziko zaie, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela.

11. artikulua. — *Onuradunen informazioaren konfidentzialtasuna*

1. Portugaleteko Udalak konpromisoa hartu du dirulaguntza hauen onuradunei buruzko informazioa ez duela erabiliko programaren esparrukoa ez den beste ezertarako.

2. Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

12. artikulua. — *Dirulaguntzen publizitatea*

Aurkezteko epea amaituta eta eskaera guztiak ebatzita, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikulua arabera argitaratuko da.

13. artikulua. — *Aurrekontuko zuzkidura*

Dirulaguntza hauek emateko, dagokion deialdian jasotzen den zenbatekoa erabiliko da, ekitaldi bakoitzeko udal-aurrekontuaren barruan.